

# Zebarri

ETXEBARRIKO EUSKALTEGIKO IKASLEEK EGINA  
2005 eko ABENDUA



**GABONAK BADATOZI!  
IKASI EUSKARA**



Bekosolo Parkea • Tlf. 94 426 28 02



# polikiroldegi berria etxebarrin



Joan den azaroaren 26an inauguratu genuen, Bizkaikoen bai ikusle kopuruari dagokionez, bai kantitateari dagokionez.

Polikiroldegia 9 milioi euro kostatu da daitezke ikuskizunak ikusten.

Aipatu beharra dago beroa xurgatu panel jarri ditugula energia aurrezteko



Etxebarriko Udal Polikiroldegia artean postu nabarmena daukana ekipamenduen kalitate zein

eta 1440 pertsona eserita egon

eta biltzen duten 300m<sup>2</sup> eguzki eta atmosfera gutxiago kutsatzeko.

Erdiko eraikinean argi natural asko sartzen da, beiradun estalkiaren ondorioz eta soinu ona dago, horma zein sapaia soinua xurgatzen dutelako, horrenbestez, ikus entzuteko ikuskizunak egin daitezke bertan: kontzertuak, antzerkiak, musika emanaldiak... Eraikin honek Etxebarriko beharrezana beteko du alor honetan; izan ere, orain arte ez dugu honelako ikusentzunezko ikuskizunak antolatzeke aretorik izan.

Polikiroldegi berriak ondokoak ditu: paddel pista bi eta teniseko beste bi, gimnasioa hainbat ekintzetarako (aerobica, spinninga, erlajazioa...), sauna bi, lau solarium eta hamabi aldaleku.

Hau guztia udal igerilekuekin batera lotu da, instalazioaren kudeaketa errazagoa izan dadain eta mantentzen gastuak murrizteko asmoz.

Sarreran kafetegi handia du eta bertan elkartu ahal izango dira bai eraikinera doazenak, bai inguruko plazan egongo diren Etxebarriko biztanleak ere.

Argi utzi nahi dugu Etxebarrin egindako inbertsio hau ez dela kirolari amorratuentzat bakarrik, herriarentzat baizik, herritar guztientzat, aisialdirako hainbat aukera ematen du eta.

Polikiroldegia Etxebarriko Udalak Etxebarriko biztanleentzat egin du, Etxebarri aurrera egiten duenaren adierazgarri, eta etorkizun hobe zein erosoagoa eskaini nahi diegu Etxebarriko guztiei.



Alkatea: Pedro Lobato



## Tarrasta: etxebarriko gazteentzako proiektu berria.

### Zer da "Tarrasta"?

'Tarrasta', 11-14 urte bitarteko topagunea da.

### Zergatik izen hori?

Izen metaforikoa da 'Tarrasta'. 'Harribide Fundazioaren' barruan proiektu diferenteak sortu izan dira. Proiektu horietako bat 'Tarrasta' da, proiektu berriena, alegia. Izenen bitartez, 'Harribide Fundazioan' sortutako proiektu guztiei nolabaiteko lotura ematen diegu.

Adin horretan, gazteen nortasuna etengabe mugitzen da, aldatzen da. Tarrastak mugimendua adierazten du. Guk ikusten dugun perekotasun sinboliko hori izan da izen hau aukeratzeko arrazoia.

### Zer dela eta pentsatu zenuten proiektu hau Etxebarrin beharrezkoa zela?

11-14 urte bitarteko gazteek dagoeneko ez dute interesik ludoteka batean eta Gazte Etxean, berriz, ezin dira sartu gazteegiak direlako. Hortaz, Etxebarriko gazte hauen beharrei erantzuteko, proiektu hau egokia zela pentsatu genuen.

### Zenbat jende dago proiektuaren barruan lanean?

Jende asko dabil lanean, izan ere, lehen aipatu bezala, fundazio baten barnean sortutako proiektua da.

Esan behar dugu jende gaztea garela horretan lanean gabiltzanok.

### Eta 'Tarrastaren' arduradunak nortzuk dira?

Etxebarriko gazte batzuk: Raquel, Vanesa, Garbiñe, Izaskun...

### Zer nolako ekintzak eskaintzen dira?

Gazteak egoteko lekua izateaz gain, beharra duten gazteek ikasketetarako laguntza jasotzeko aukera izango dute; eta beste aldetik, tailerrak, irteerak, ibilaldiak... antolatuko dira. Beraz, ikus daitekeenez, eskaintza zabalago dago.

### Noiztik dago martxan?

Abenduaren 16an inaugurazio ofiziala izango da baina gazteentzat 19an izango da hasierako eguna.

### Etxebarriko beste elkarteetatik laguntzarik jaso duzue?

Proiektu berria denez, elkarte gehienek ez dute gure berri oraindik izan. Baina aurrera begira beste elkarteetara laguntza eskatu behar bagenie eskatuko genieke, eta ekintza bateratuak egiteko prest ere egongo ginateke.

### Eta amaitzeko, zer espero duzue?

Gazte hauen beharrak benetan asetuta ikustea, azken batean gazteak gustura egotea da gure helburua.



# ikasleen ipuina



## “ORLEGI”



Behin batean neska polit bat jaio zen herri txiki batean. Gurasoak oso pozik zeuden denbora luze zeramatelako seme-alabaren bila. Amak bere alaba ikusi zuenean, zerbait arraro ikusi zuen, ez zeukan ile arrunta, bere ilea belarra bezalakoa zen. Ama, hau ikusi eta gero, ohiuka hasi zen.

Aita kanpoan zegoen zain, oso urduri. Emaztea entzun zuenean, gelan sartu zen berehala. Emaztea negarrez zegoen eta jaioberria (gure protagonista) ohe erdian bakarrik eta negar zotinka. Aitak ez zuen ezer ulertzen, ez zekien zer gertatzen zen. Neskatila jaioberria ikusi zuenean musu asko eman zion eta magalean hartu zuen. Ez zuen ezer nabaritu, oso pozik zegoelako; izan ere, bere ustez munduko alabarik politena zen.

Emaztearekin hitz egin zuenean konturatu zen, baina ez zion garrantzi handirik eman. Ilea ikusi eta gero Orlegi deitu zuen.

Orlegiren ama ez zegoen oso pozik, herrian zurrumurrak zeuden eta. Orlegi oso neska alaia zen eta ile luzea zeukan mototsekin.

Orlegik 18 urte zeukanean gosete handia izan zen hondamen-epidemia heldu zelako. Belar guztia gaisotu egin zen eta horren ondorioz abere asko eta asko hil egin zen. Jendeak ez zeukan janaririk...

Egun batean Orlegik ideia on bat izan zuen, hau da, bere etxean behia zegoen eta oso gaisorik zegoen, ia-ia hilda. Bere ondoan jarri eta ilea moztu ondoren behiari eman zion. Behiak oso ondo eta gustura jan zuen eta berriro eman zuen esnea.

Hau ikusita, Orlegi etxez etxe joan zen abereak bere ilearekin elikatzen.

Herri guztiak eskerrak eman zizkion, bere ileari esker herritar zein abereak bizirik atera zirelako.

Hau horrela bazan, sar dadila kalabazan.



# nekea eta makalaldia




Lanak, kirolak... hau da, gaur egungo bizimoduak gure energia guztia agor dezake. Nekea fisikoa eta nerbioena izan daiteke, izan ere, biak elkar lotuta daude, bata bestearen eraginez ager daiteke eta alderantziz.

Energia falta modu askotan ager daiteke: depresioa, antsietatea, eskolako, laneko zein kiroleko errendimendua gutxitzea, etab. Hau guztia dela eta, gure bizitzaren aldi horri aurre egiteko, sarritan energia extra behar dugu. Horretarako, osasun eta errendimendu ahalmen gehiago lortzeko substantzia naturalak daude, propietate eragingarri, bizkorgarri, dinamiztzaile eta birpizgarriekin eta ondorio gabeak gainera:

## **JALEA REAL:**

BALIO ELIKAGARRI HANDIA DAUKA ETA GORPUTZARI BIZITASUNA ETA ENERGIA EMATEN DIO. **A**, **B**, **D** ETA **E** BITAMINETAN ABERATSA DA.



## **GINSENG:**

NEKE SENTSAZIOA GUTXITZEN DUEN ERAGINGARRI NATURALA DA.



## **ELEUTEROKOKO:**

LAN FISIKO ETA INTELEKTUALA EGITEKO AHALMENA HANDITU EGITEN DU.

## **POLENA:**


NERBIOAK INDARTU ETA KONTZENTRAZIO AHALMENA ETA EGOERA EMOZIONALA HOBETU EGIEN DITU.





# arabierako klaseak

Gure herrian arabiar asko daude. Bizitza berriaren bila etorri dira. Gurekin lan egiten dute eta beren seme-alabak gurekin joaten dira eskolara. Ohitura oso desberdinak dituzte, adibidez, janaria. Guk jantokian egiten dugu lan eta haietako batzuk jantokian geratzen dira bazkaltzen. Bazkaltzean, janari berezia egiten diete; dakizuenez, musulmanek ezin dute txerrikirik jan, horregatik ezin dute solomoa, saltxitxak, txerri txuleta, urdaiazpikoa, odolostea eta abar jan, orduan, janari horiek daudenean beste zerbait ekartzen dute haur horientzat.



Herrian arabierako klaseak ematen dituzte igandeetan, eta arabierako irakasle den ABDULEkin solasalditxo bat izan dugu.

Hemen duzue elkarrizketatxoa:

Irakaslearen datuak: ABDUL... fisikan lizentziatua da eta hainbat hizkuntza hitz egiten du: arabiera, frantsesa eta ingelesa. Gaztelania bere kabuz ikasi zuen, laguntzarik gabe, eta euskara pixkatxo bat ere badaki.

**1. NOR ZARA ZU?**

Ni ABDUL naiz.

**2. NONGOA ZARA?**

Marokokoa naiz.

**3. ZENBAT DENBORA DARAMAZU ETXEBARRIN?**

14 urte daramat.

**4. ZU ARABIERAKO IRAKASLEA ZARA, NONDIK IRTEN DA IDEIA HAU?**

Etxebarriko herrian gero eta arabiar gehiago dagoenez, pertsona hauek beren hizkuntza eta kultura ezagutzeko beharrezana nabaritu genuen; izan ere, beraien seme-alabek badakite arabieraz hitzegiten, baina ez dakite idazten, ezta irakurtzen ere.

# etxebarrin



## 5. NOR JOAN DAITEKE ZURE KLASEETARA?


Edonor etor daiteke, umeak, gazteak, nagusiak eta arabiarrek edo ez.

## 6. ZEIN EGUNETAN DIRA KLASEAK?

Klaseak igandeetan izaten dira orain, baina taldeak egin nahi ditugu jendearen adinaren arabera.

## 7. ZER ESAN DEZAKEZU JENDEA ZURE KLASEETARA JOATEKO?

Ona da hizkuntzak ikastea "hizkuntza bat jakinez gero, herri bat irabazten duzu". Gu zuen kulturari integratu ginen hizkuntzak ikasiz, gaztelania, euskara... eta horregatik guk gure hizkuntza eta kultura ezagutzeko aukera eman nahi dizuegu.



## 8. ARABIERA ZAILA ALA ERRAZA DA?

Ez dago ezer zailik, borondatea behar da, borondate ona izanez gero, dena egin daiteke.

## 9. ZER DA ERRAZAGOIA ARABIERA IDAZTEA ALA HITZ EGITEA?

Zailena ahoskera da. Zailagoa da idaztea euskara eta gaztelaniarekin konparatzen badugu, letra eta zeinu berriak direlako, hau da, alfabetoa guztiz desberdina da.







## herritarren kexak



Herritarrok herriari buruzko kexa batzuk ditugu eta azaldu nahi ditugu. Hauexek dira:

### 1.- Bekosolo parkeko argia.

Bekosolo parkea Etxebarriko parkerik eroso eta politena da ibiltzeko, honetaz gain, Etxebarrin oso parke gutxi dago.

Bekosolo parkean dauden etxeetan ikastaroak egiten dira: euskara, musika etab. eta jendea, parkean zehar ibiltzeaz gain, ikastaroren bat egitera ere etortzen da Bekosolo parketa. Iluntzean, negu partean batez ere, oso goiz iluntzen duelako, parkea erdi ilunetan dago, hau da, ia ez dago argirik, edo oso gutxi dago. Beraz, hau da gure kexa: Bekosolo parkean oso argi gutxi dago iluntzen duenean.

### 2.- Etxebarriko aparkalekuak.

Etxebarriko auzokide batzuek autoentzako aparkalekua gordetzen dute, nola? Ba, hiru auto sartzen diren tokian bi auto aparkatzen dituzte oso nasai, eta honen ondorioz gainontzeko auzokideei autoa aparkatzeko lekua kentzen diete. Gainera, beraien lagunen baten edo ezagunen baten autoa aparkatu nahi badute, auto bi horiek mugitu eta ezagunaren auto hori sartzen dute. Ezin dugu ezer egin hau gerta ez dadin?

### 3.- San Antonioko okindegiak.

San Antonioko okindegi guztiak ordutegi bera daukate goizez, hau da, goizeko bederatzietatik ordu biak arte. Honen ondorioz, goizez lan egiten dugunok ez dezakegu ogirik erosi auzoan eta beste herri batera joan behar dugu, Basaurira adibidez, ordutegi desberdina dutelako. Ez da posible ordutegia zabaltzea?

### 4.- Etxebarriko aparkalekuak.

Metroa Etxebarrira heldu denetik, herri osoan ez dago aparkatzeko lekurik, zeren eta jende asko kanpotik (inguruko herrietatik) baitator autoa bertan aparkatu eta metroa hartzera. Honetaz gain, astebururo, futbol partidei eta ezkontzei esker, herria autoz beteta dago. Ezin dugu arazo hau moduren batean konpondu?

## zer da beharrezkoa etxebarrin?



-Bekosolo parkean, euskaltegiaren ondoan argi gehiago ipintzea beharrezkoa da.

-Denda gehiago behar dira Etxebarrin: supermerkatuak, arropa dendak, argazki dendak, informatika dendak, kirol dendak...

-Taxi-zerbitzu hobea beharrezkoa dugu.

-Baselizatik metrorako bidea oso luzea da eta udan bero handia pasatzen dugu, horregatik bide horretan zuhaitzak ipini behar dituzte.

-Olio botatzeko ontziak Etxebarriko etxe guztietan banatu behar dira eta gero ontzi horiek jasotzera etorri.

-San Antonio Etorbidearen igoera oso luzea eta aldapatsua da, horregatik eskailera mekanikoak edo teleferiko bat ipintzea beharrezkoa da.

-'Lanzaderaren' salneurria oso garestia da, dohainik izan behar du. Osasun-Zentrura joateko beste autobusen maiztasuna handitzea beharrezkoa da.

-Etxebizitza merkeagoa behar dugu.

-Berdegune gehiago eta parke handiagoa beharrezkoak dira eta ibaiaren ondoan hondartza txiki bat behar da.

-Etxebarrin bidegorri bat beharrezkoa da, horrela kotxea etxean utziko dugu.

-Orain metroarekin aparkaleku publiko gehiago behar dira.

-Umeez jolasteko leku itxiak behar ditugu.

-Gurasoek lanera goiz joan behar dutelako eskola lehenago ireki behar dute.

-Udaletxe politagoa behar da.

-Etxebarrin gauetan giro handiagoa behar da, horretarako taberna gehiago ireki behar dituzte eta larunbatetan afaltzeko jatetxe bat beharrezkoa da, askotariko menuekin, zuzeneko musikarekin...

Euskaltegiko ikasleak.



## Non bizi zen?

**1950. urtean gaude, Etxebarrin;  
Bertako pertsona bat elkarrizketatu dugu.**

**Zein da zure izena?**

Nire izena Katalin da.

**Nongoa zara zu?**

Ni etxebarrikoa naiz.

**Eta orain non bizi zara?**

Orain Etxebarrin bizi naiz. Hemen ere beste familia bat bizi da, eraikin honetan bi etxebizitza daude.

**Zein da zure lanbidea?**

Ni etxeakoandrea eta baserritarra naiz.

**Zeintzuk dira zure baserriko lanak?**

Behiak, txerriak eta beste animaliak zaintzen ditut, baratzeko lanak egiten ditut, baserriko produktuak saltzen ditut. Pikuak oso famatuak dira.

**Nortzuk dira toki honetako jabeak?**

Toki honetako jabeak oso oso aberatsak dira. Toki honetako jabea Lezama-Leguizamon familia da.

**Nongoak dira toki honetako jabeak?**

Toki honetako jabeak Algortakoak dira. Gu alokairuan bizi gara eta Santo Tomas egunean Bilboko Gran Vian errenta ordaintzen dugu.

**Norekin bizi zara?**

Nire senarra eta alabarekin bizi naiz.

**Zure senarrak ere toki honetan lan egiten du?**

Ez, nire senarrak ez du toki honetan lan egiten, nire senarrak fabrikan lan egiten du.

**Zuek toki honetan pozik zaudete?**

Gu hemen oso oso pozik eta zoriontsu bizi gara.

**Nolakoa da toki hau?**

Toki hau handia eta oso polita da, baita lasaia ere. Hau paradisua da.

**Zenbat gela daude toki honetan?**

Hiru solairu daude, behean sukaldea, komuna eta egongela daude; erdian logelak daude eta goian ganbara dago.

**Zer dago etxearen kanpoko aldean?**

Etxearen kanpoko aldean lorategia, putzua, fuitondoak, baratza eta kortak daude.

**Orain zeure txanda da!**

**Etxebarriko zein tokitan bizi ote zen katalin 1950. urtean?**



## euskararen etxea



Euskarak dagoeneko badauka bere etxea eta gainera, oso hurbil daukagu, Bilboko San Inazio auzoan, alegia. Metro geltokotik oso gertu eta sarrera dohainik delarik. Orduan, ez daukazu aitzakiarik ez joateko!

2004ean sortu denez teknologia berriekin ikus dezakegu euskararen bilakaera. Jada, hainbat jendek bisitatu du bai euskararen etxea zein beraien web orria, hots, [www.euskararenetxea.net](http://www.euskararenetxea.net).



Euskararen etxea lau solairutan banatuta dago. Lehenengo solairuan, "Euskararen Interpretazio Zentrua" dugu. Tren geltoki baten antzera giroturik azaltzen zaigularik. Bidaia honetan euskararen historia eta bilakabidea ezagutuko ditugu. Bi bagoi, nasa bat eta ikus-entzuneko tunel bat dira aipagarrienak.



Goazen orain lehenengo solairu honetan dauden zatiak azaltzera. Lehenengo bagoiak "Bat eta Asko" izena dauka. Honetan, euskalkien eta euskara batuaren gorabeherak azaltzen dira, argazki eta jokuen bidez. Azken hauek, bisita jolasgarriagoa eta aberasgarriagoa egiten dute. Bigarren bagoiak "Atzo eta Gaur" izena dauka. Hemen, mapen eta multimedia jokuen bidez euskararen historia eta bilakaera azaltzen zaigu.



Nasan, euskaldunok eta euskarak munduan zehar utzi dugun aztarna topatuko dugu. Bai mundu osoan zehar euskara eta euskal etxeen presentzia nabaria ikusirik bai gainontzeko hizkuntzetan euskarak izan duen eraginaz jabetzean.

Azkenik, ikus-entzuneko tunelean bideo ikusgarri baten bidez euskararen historia modu atseginean azalduko digute.

Bigarren solairuan, "Mediategia" daukagu. Hemen hainbat ordenagailu aurkituko ditugu eta hauetan ibiltzeko aukera izango dugu. Artxibo honetan, orain arte euskaraz ekoiztu diren multimedia produktuak biltzen dira zenbait euskarritan; diskete, CD, DVD eta Interneta.



Hirugarren solairuan, "Euskal Idazleen Elkarte", "Topagunea euskara elkarten federazioa" eta "Mendebalde kultura Alkartea" daude.

Laugarren solairuan, "Bizkaiko Ikastolen Elkarte" dago.

Bisitaldi hau egin genuen taldearen iritziz, oso gutxi dakigu euskararen historiaz. Bisitaldi hau egin eta gero, zertxobait gehiago ikasi dugula uste dugu eta guretzat oso interesgarria izan dela azpimarra dezakegu. Horrexegatik, jendea joatera animatzen dugu. Animo eta zu ere ausar zaitetz euskararen bidaia hau egitera!!!!





## durkitu zazpi desberdintasunak



## horoskopoa



### ARIES

(martxoak 21-apirilak 20)

Eguberrietako oporrak baino lehen ateratzeko azken saiotoxa egin beharko duzu. Jokoezin zorte ona, egin kiniela eta lan egiteari utziko diozu.

### LIBRA

(irailak 24-urriak 23)

Maitasuna aurkitu nahi baduzu gehiago irten behar duzu. Lan bila joateko unea da edo lana badaukazu eta aldatu nahi baduzu pentsatu orain.

### TAURUS

(apirilak 21-maiatzak 20)

Aste honetan zortea ez da zure arazoa izango, erosi kupo batzuk. Asteburuan arrakasta handia izango duzu, aurpegia musuz beterik joango zara etxera.

### SCORPIUS

(urriak 24-azaroak 23)

Diru arazoekin kontuz, aurreztu edo hobeto administratu. Maitasunean oso pertsona berezia duzu ondoan, zabaldu begiak. Lagunekin plan asko eta oso ondo pasatuko duzu.

### GEMINI

(maiatzak 21-ekainak 20)

Aste positiboa, oso erne egon behar duzu, maitasuna zure bizitzan sartu ahal delako. Loterian jokatu, zortea izango duzu. Kontuz gabonetako bazkari-afariekin, sabela ahul daukazu eta.

### SAGITARIUS

(azaroak 24-abenduak 23)

Lan gehiegi egitea ez da ona osasunerako. Izar baten moduan dirdir egingo duzu. Aste honetan aprobetxatu, datorren astean mauka amaitu egingo da eta.

### CANCER

(ekaina 21-uztailak 20)

Negu honetan kontuz eguraldiarekin, oso makal zaudelako. Hobe duzu gabonetarako dirua aurreztu.

### CAPRICORNIUS

(abenduak 24-urtarrilak 20)

Badakigu oso burugogorra zarela, egun hauetan ez dizugu eskatuko gauza zailak egiterik, bestela, zure ondokoak lur jota utziko dituzu. Saiatu gauza errazak egiten: ahoa itxita jan, kuleroak aldatu eta etxetik irtetea zapatak jantzi.

### LEO

(uztailak 21-abuztuak 23)

Maitasuna eta bakea errazak izango dira. Diru gehiago irabaziko duzu. Une ona ondasun higiezinetan inbertitzeko. Atsedean hartu eta zeure buruari azterketa orokorra egin.

### AQUARIUS

(urtarrilak 21-otsailak 18)

Teilatu azpitik pasatzean adi egon usekin, kaka egin aha dizute eta, baina lasai egon, badakizu, garrantzitsuena ez da eguna nola hasten duzun, nola bukatzen duzun baizik.

### VIRGO

(abuztuak 24-irailak 23)

Aste hau ez da zuretzat onena: Lanean: dena txarto egingo duzu. Maitasunean: zure bikotearekin arazoak. Osasuna: kontuz ibili eta ez hoztu.

### PISCIS

(otsailak 19-martxoak 20)

Aste honetan posible da lana lortzea. Oporretan leku exotiko batera joan, lagunak egingo dituzu. Kontuz, negua da eta erraza da marranta hartzea.

## gabonetarako errezetak



### BARRASKILOAK

#### Osagaiak

4 lagunentzat	Pipermin bat
500 g barraskilo	Koilarakada bat piperrauts
150 g urdaiazpiko	Ereinotz hosto bat
3 tomate	Azafraia
2 tipula	Olioa
30 almendra	Gatza
4 baratxuri ale	Perrexila



#### Nola Egin

Barraskiloak garbiak eta egosiak erosi.

Saltsa prestatzeko ontzi zabal batean olio jarri.

Tipulak eta zurituta ditugun tomateak txikitu eta kazolara bota. Baratxuriak xerretan ebaki eta kazolara gehitu.

Ereinotz hostoa eta pipermin zati bat ere bai. Gatza bota eta su erdian 20 minutuz egosi.

Saltsa irakiten dagoenean, txikitutako urdaiazpikoa, azafraia eta piperrautsa gehitu. Barraskiloak sartu eta nahastu ondo.

Mortairuan almendrak ondo xehatu eta kazolara bota, nahastu eta beste 10 minutuz su motelean egin.

Ontzi haundi batera karakolak atera eta erdian ereinotz hostoa eta piperminez apaindu.

### GAZTA ETA TXOKOLATEZKO PASTELA

#### Osagaiak

#### OINA (BASEA) EGITEKO

200 gr gaileta integral  
2 goilarakada xerez gozo  
4 goilarakada gurin

#### PASTELA BETETZEKO

Burgoseko gazta (kilo erdi)  
150 gr gurin  
150 gr azukre  
Limoi baten zukua  
6 orri gelatina (10 gr)  
75 gr txokolate (foundant)

#### GAINETIK JARTZEKO

150 gr esnedun txokolate  
2 goilarakada gurin



#### Nola Egin

1. Txikitu gaileatak arrabolarekin (rodilloa). Nahastu gurina eta xereza oinarria betetzeko. Sartu labean 10 minutu. Bitartean, busti gelatina limoi uretan (edalongtzi • guztira).
2. Pastela betetzeko: irabiatu gazta, gurina, azukrea eta gehitu gelatina. Urtu txokolatea mikrouhinean minutu eta erdi. Kremaren heren bati gehitu hau. Kremaren beste erdiarekin estali oinarria eta hozkailuan sartu.
3. Estali pastela txokolatearekin eta berriro hozkailura, gero beste krema geruza gehitu.
4. Gaietik: urtu esnedun txokolatea gurinarekin. Estali pastela eta egin marrazkiak sardezka batekin.